

## / Nabarmenezkoak

- > "El viaje del monstruo fiero", Rafael Álvarez "El brujo"-rekin (3. or.)
- > Delirium Tremensen azken bira Muxikebarrira iritsiko da (4. or.)
- > Getxo Kirolakek 588 abonamendu eta ikastaro eta jardueretan izena emandakoen 4.300 pertsona gehiagorekin itxi zuen 2024a (5. or.)



\*Liburu Azoa, Areetan eta Romon (3. or.)

**Kontzertua.** Hilak 11, ostirala, 21:00etan, Muxikebarrin, Olatz Salvadorek bere diskoa aurkeztuko du, "Zainak eman". 18€.

**Antzerkia.** Hilak 12, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Badakizu plastikozko loreak ez direla inoiz bizi, ezta?", T. Irureta, A. Garmendia eta M. Gabilondorekin. 12€.

**A-  
GENDA**

Hasi dira daborduko lanak Romo ikastetxe publikoko eraikin hexagonalean; bertan kokatutako da

## Getxoko Haurreskola berria, Kresaltsu izenekoa

Getxoko Haurreskola berriak, eraikitzen hasi den udalerriko bigarrenak, Kresaltsu izena izango du, pasa den astean udaletxean egin zen martxoko ohiko osoko bilkuran jakinarazi zenez. Alderdi politiko guztien aldeko botoekin, Elkarrekin Podemosenarekin izan ezik, abstenitu egin baitzen, erabaki zen Haurreskolen Partzuergoari zentro berria sortzeko eskatzea eta haren izena Kresaltsu izango dela jakinaraztea, udaleko Euskara Arloak iradokitakoaren arabera eta Romo auzoko toponimia kontuan hartuta, Romo ikastetxe publikoaren eraikin hexagonalean kokatuko baita.

Hasi berri diren obrak egiteko, Udalak 612.000 euroko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzaren eskutik, Europar Batasuneko *Next Generation* funtsen kargura. Diru horrek gastuen zati bat estaliko du, gutxi gorabehera 900.000 eurokoak izango direnak.

Kresaltsu Haurreskolak, 2026tik aurrera, guztira, 34 plaza eskainiko ditu 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzat: gela bat, 0 eta 1 urte arteko



adina dutenentzat, eta bi gela, 1 eta 2 urte arteko adina dutenentzat.

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek nabarmendu zuten albiste ona dela Getxon bigarren Haurreskola bat izatea, baina uste dute eredu deszentralizatuago baten alde egin behar dela, eta, beraz, beste auzo batzuetan antzeko zentro gehiago sortu behar direla. Udal-gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) adierazi zuenez, haur-hezkuntzarekin eta lana eta familia uztartzearekin duen konpromisoa indartuko du

Kresaltsuk. Eraikin moderno, irisgarri eta efizientea da, eta Algortako Los Fueros kalean dagoen Egunsentia haurreskolarekin batera, Getxok 130 plaza izango ditu udalerriko haurrentzat.

### Beste gai batzuk

Bestalde, aho batez onartu zen 2.024.000 euroko kreditu gehigarria eta 2.000.000 euroko konpromiso-kreditua (100.000€ 2026rako; 500.000€ 2027rako eta 1.400.000€ 2028rako) atletismo, belodromo eta errugbiko harmailen eraikina fi-

nantzatze, iaz Gobernu alderdiek eta PPK 2025eko Aurrekonturako sinatutako akordioari esker.

Halaber, hasierako onespina eman zitzaion Algortako Manuel Gainza aparkalekuaren araudi aldaketari, bertan partzela bat duten egoiliarrei ordainketa zatikatua errazteko, eta, horrela, hileror ordaindu ahal izan dezaten, gaur egun egiten duten urteko ordainketaren orde.

Era berean, 2024ko Udalaren Aurrekontu Orokorren likidazioaren onespinen berri eman zen; gobernuaren ustez kudeaketa ona islatzen du horrek, eta oposizioarentzat, berriz, guztiz kontrakoa. Halaber, joan den martxoaren 6an, M8 Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, aho batez onetsitako adierazpen instituzionalaren berri eman zen.

Mozioen atalean, osoko bilkuran aurkeztutako bakar bat ere ez zen aurrera atera, eta galde-eskeen txandan, Portu Zaharreko festetik sokamuturra kentzearen aldeko mugimenduko bi ordezkari parte hartu zuten.

## Gure Zirkuarekin sinatutako hitzarmenak aisialdian euskararen erabilera sustatzen lagunduko du, Euskara Planaren helburuetako bat

Aisialdian euskararen erabilera sustatzen laguntzea da Udalak eta Gure Zirkuak sinatutako hitzarmenaren helburua, Euskara Plan Estrategikoaren barruan umeen eta gazteen erabilera handitzeko neurriekin bat datorrelako. "Getxon inoiz ikusi ez den euskarazko zirku-ikuskizuna izango da eta espero dugu umeengan eta hain ume ez direnengan ere magia, ilusioa, lilura...sortzea. Euskaraz hitz egiten dutenak, ikasten ari direnak eta euskarara hurbil nahi dutenak gonbidatu nahi ditut jarduera honetan parte hartzera", adierazi zuen Amaia Agirre alkateak, hitzarmenaren sinadura aurkeztean. Bestalde, Iker Galartza Gure Zirkuaren sortzailea oso pozik agertu zen zortzigarren denboraldi berriari hasiera emateagatik eta hasiera Getxon hasteagatik, eta hurbiltzera animatu zuen "berri-



tasun beteriko ikuskizuna izango delako, polita, umoretsua, goxoa, koloretsua, parrandaz beterik eta ondo pasatzeko gogoz. Abestu egingo dugu gure hizkuntzan eta gure musikarekin", amaitu zuen Galartzak.

Hitzarmenaren arabera, Udalak Gure Zirkuari baliabideak erraztuko dizkio eta Gure Zirkuak hainbat abantaila eskainiko du, esate baterako, umei zirkuaren funtzionamendua hurbiletik ezagutzeko aukera. Portu Zaharrean izango diren **bederatzi emanaldiak** hurrengoak izango dira: **maiatzaren 4an**, 17:00etan; **9an**, 19:00etan; **10ean**, 16:30ean eta 19:00etan; **11n**, 12:00etan eta 17:00etan; **16an**, 19:00etan eta **17an**, 16:30ean eta 19:00etan. Sarreraren prezioa 15 eurokoa da, Gure Zirkuaren webgunearen bidez: <https://www.gurezirkua.eus/sarrerak/>



### APIRILAK 3 OSTEGUNA

**Hitzaldia.** 18:15ean, Romo Kultur Etxean, "Inteligencia emocional y empoderamiento". Hizlaria: Janire Cordero (generoan espezializatutako psikologo klinikoa). Antolatzailea: Gizatiar.

**Zinemabarrin.** 19:00etan, Muxikebarrin, Telmo Esnalaren "Urte berri on, amona!" (euskaraz). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

**Txokoa.** 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean, Mikel Etxaburu idazlearekin "Mantalingo alaba" poema liburuaren solasaldia. Informazioa eta izenematea: [www.egizu.eus](http://www.egizu.eus)

### APIRILAK 4 OSTIRALA

**Liburu azoka.** Areetako Geltokia plazan. Argitalpen berriak, udal liburutegiko funtsak, adin guztientzako jarduerak... Hilaren 6ra arte.

**Argazki-erakusketa interaktiboa.** Romo Kultur Etxean, Xavier Undaren "Getxo, begirada magiko bat".

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Agnieszka Hollanden "Green border" (JBA). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

**Kontzertua.** 21:00etan, Muxikebarrin, "Delirium tremens". 20€.

### APIRILAK 5 LARUNBATA

**Outlet solidarioa.** 11:00-14:30, Romoko San Jose parrokiako arkupean, dena 1 eurotan. Antolatzailea: Gizatiar.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "El viaje del monstruo Fiero" (gaztelaniaz) Rafael Álvarez "El brujo"-rekin. 18€.

**Ikuskizun musikala.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Joséphine Baker: izar ausarta". 5€.

**Kontzertua. "Organo & Polyphonia" zikloa.** 20:00etan, San Nikolas Barikoa parrokiaren, "Ars Canticum Ensemble", Pedro Guallar (organoa), Oscar González (zuzendaria). Antolatzailea: Merklin Organoaren Lagunen Elkarte-AMOMA.

**Txatxarrak,** 11:30ean, Romo Kultur Etxean. Garazi Basterretxea Bareak gidatuta, Euskal testuetatik abiatuta, testuak sortzeko. [egizugetxo@gmail.com/](mailto:egizugetxo@gmail.com) 722 78 93 02.

**Integratioko Boliviako inauterriak.** 16:30ean irteera Ereagako Gurutze Gorriaren postutik Bizkaia Zubiraino. Antolatzailea: Boliviaren Aldeko Kultur Elkarte eta Boliviako Batzorde Zibikoa Bizkaian, Berantzagi Dantza Taldearen laguntzarekin.

### APIRILAK 6 IGANDEA

**XI. Getxotik oinez bizi.** Irteera 10:00etan Algortako Geltokia plazatik. Antolatzailea: Itxartu Taldea

**Haurrentzako antzerkia.** 18:00etan, Muxikebarrin, "La fábula de la ardilla", La Baldufa Teatrerekin. 3 urtetik aurrera. 6€.

**Zinematikiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Trash, la leyenda de la pirámide mágica" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "King, mi pequeño rey" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

**Ongintzako kontzertua. Pequeñas Voces Fundazioaren alde.** 18:00etan, Kristo Eroslearen elizan, 140 ahots zuriko abesbatza, Jim Papouliosek zuzendua. Antolatzailea: Esku Esku Abesbatza eta Lilura Abesbatza (Getxo).

**Erligio-kontzertua.** 19:45ean, Ama Mesedeetako parrokiaren, Ars Canticum Ensemble, Pedro Guallar (organoa) eta Oscar González (zuzendaria).

### APIRILAK 7 ASTELEHENA

**Gurasoen Eskola:** 16:00etatik 18:15era, Julio Caro Baroja institutuan (apirilaren 8an ere). "Depresión en la infancia y adolescencia", Fernando González Serrano haur eta nerabeen psikiatra eta Bizkaiko Buru Osasuneko Zerbitzuko buruarekin. Haurtzaindegi zerbitzua eskatzeko aukera. Antolatzailea: Udala. Izenematea eta informazioa: [gurasoeskolak-getxo@gmail.com](mailto:gurasoeskolak-getxo@gmail.com)

**Hitzaldia.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Sanidad, envejecimiento y pandemias". Hizlaria: Rafael Bengoa (OMEko zuzendari ohia eta Eusko Jauriaritzako Osasun sailburu ohia). Organiza: asociación EurGetxo. <https://eurgetxo.wordpress.com/>

### APIRILAK 8 ASTEARTEA

**Entzunaldia.** 18:00etan eta 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, zentroko ikasleentzako emanaldia.

### APIRILAK 9 ASTEAZKENA

**Hitzaldia.** 17:00etan, Urgul Zentroan (Algorta), "Nos vamos de compras". Hizlaria: Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren ordezkari bat. Antolatzailea: EurGetxo. <https://eurgetxo.wordpress.com/>

**Liburuaren aurkezpena.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Raíces de vino y sangre" liburuaren aurkezpena (gaztelera), Teresa Potoc egilearen eskutik.

**Entzunaldia.** 18:00etan eta 19:30ean, Algortako Andrés Isasi Musika Eskolan (Muxikebarrin), zentroko ikasleentzako emanaldia.

### APIRILAK 10 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Basoko pertsonaiak" (euskaraz) Martikarekin. 3-7 urte.

**Zinemabarrin.** 19:00etan, Muxikebarrin, Asghar Farhadiren "Nader y Simin, una separación" (JBA). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

### APIRILAK 11 OSTIRALA

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera.

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Pawo Choyning Dorjiren "El monje y el rifle" (JBA). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

**Kontzertu sakratua.** 19:30ean, Areetako Ama Mesedeetako parrokiaren, Ondarreta abesbatzaren errezitaldia.

**Kontzertua.** 21:00etan, Muxikebarrin, Olatz Salvadorrek "Zainak eman" diskoa aurkeztuko du. 18€.

### APIRILAK 12 LARUNBATA

**Dantza plaza.** 19:00etan, Algortako San Nikolas plazan, erromeria udalerriko Dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Badakizu plastikozko loreak ez direla inoiz bizi, ezta?" (euskaraz) Telmo Irureta, Aitziber Garmendia eta Mireia Gabilondorekin. 12€.

### APIRILAK 13 IGANDEA

**Zinematikiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Sylvanian families, la película. Un regalo de Freya" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

**Haurrentzako antzerkia.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Teiltupean" (euskaraz) Lankurekin. 5-11 urte. 6€.

**Antzerkia. Emakumeak eszenan.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Helenas" (gaztelaniaz). 4,5€.

# Getxoko 17 enpresak udalerriko langabetuak kontratatu dituzte Lanbideren laguntzei esker

Getxoko 17 langabe kontratatu dituzte udalerriko enpresek, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik jasotako dirulaguntzari esker, 2024ko ekitaldiko enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren babesean. Kontratazioek 134.195

euroko dirulaguntza jaso dute.

Deialdia 2024ko abenduaren 31n amaitu zen eta bertara 30 eskaera aurkeztu ziren. 17 dirulaguntza eman dira, eta 13 ez dira eman (8 deialdiko baldintzak ez betetzeagatik eta 4 enpresa

## San Nikolas parkingeko 23 partzela zozketatu dira

Algortako San Nikolas aparkalekuko 23 partzela gehienez ere 4 urterako esleitzeko zozketa egin zen iragan asteartean, apirilak 1, Getxo udalerriko osotik jasotako eskabideen artean. Zozketan atera den lehen zenbakia 17 izan zen. Beraz, zenbaki horri dagokion eskatzailea izango da parkingean hutsik dauden partzelen artean bat aukeratzeko lehena. Gaur egun, 103 plaza horietatik 55 bete dira.

Hartara, oraindik ere 48 par-

tzela daude eskuragarri, eta horiek eskuratu ahal izango dituzte Getxon egoitza fiskala edo soziala edo lantokia duten pertsona juridikoen, profesionalen, langileek eta merkatariak. Aurrekoa egiaztatzeko, eskatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute (errolda-aitorpena, EJJ, lan-kontratua etab.). Eskabidean aparkatuko den ibilgailua zehaztu beharko da.

Eskaera-epe berriaren irekiera behar bezala iragarriko da.

## Euskara ikasteko laguntzak

Beste urte batez, Udalak euskara ikasteko eta erabilera areagotzeko diru-laguntzen deialdia onartu du eta horretara 57.927 euro bideratuko ditu. Horrela, 30.187 euro izango dira baliabide ekonomiko nahikorik ez duten getxotarrak euskara ikasteko; 14.090 euro 6 eta 15 urtera artekoentzatzat, eta 1.050 euro Udaleko eta erakunde autonomoetako langileentzatzat eta zinegotzientzatzat. Hiru kasuetarako eskaerak aurkezteko epea urriaren 13an amaituko da.

Gainera, 4.200 euro izango dira auto, moto eta ziklomotorraren gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiten duten gazteentzatzat; 1.050 euro elkartetako aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskaraz, eta 7.350 euro, errotuluak, olanak, eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko. Hiruren eskaerak aurkezteko epea azaroaren 17ra arte egongo da zabalik. Eskaerak: ahal dela Administrazio Elektronikoko Bulegoaren bitartez (<https://labur.eus/14odd5oh>)



## Felix Goñirentzat sari berria

Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiak eta Sociedad Bilbaína elkarteak XVIII. Dr. José Carrasco-D. Máximo de Aguirre Sariak banatu berri dituzte. Sari horiek beren jardueran profesionalen nabarmendu diren edo gizartearentzako zerbitzuak egin dituzten pertsonak edo erakundeak saritzen dituzte. Sarituen artean dago Felix Goñi zientzialari eta ikertzailea, Getxoko bizilaguna, zeinak dagoeneko Europako zientziaren arloko sari ospetsuak jaso baititu, hala nola Humboldt (2021) eta Toth, eta Friedrich Wilhelm Bessel Research Award (2019). 2012an, udalak AixGetxo saria eman zion, *Kultura Zientifikoa* kategorian.

aurrekontu-krediturik ez izateagatik). Enpresa batek atzera egin zuen bere eskaeran, ez baitzuen eskatutako dokumentazioa bidali, eskatu ondoren.

Diruz lagundu diren 17 kontratu mugagabeetatik, 13 emakume langabeentzatzat dira (%76,47), 10 lanaldi partzialekoak (guztiak %50etik gorako lanaldiak) eta 7 lanaldi osoak. Era berean, kontratuetatik, 12 kolektiboetara zuzenduta daude: 35 urtetik beherako 7; 55 urtetik gorako 2; iraupen luzeko 2 langabe; 35 urtetik beherako pertsona 1 eta iraupen luzeko langabea.

## Getxo Enpresaren memoria

Getxo Enpresak 2024ko batzar orokorraren emaitza nagusietako batzuk aurkeztu ditu. Urte horretan 15 sustapen-jarduerara antolatuta zituen ia 500 negozioren partaidetzarekin, 153 gai zabaldu zituen elkarteki-dezentzatzat; bere web guneak 8.357 erabiltzaile berri eta 31.274 bisita izan zituen eta bere sare sozialek 3.500 jarraitzaile baino gehiago izan zituzten (5.900 bisita Facebooken eta Instagramen, eta 23.000 inprimatze inguru X. sarean). Gainera, 10 prestakuntza-saio eskaini zituen, 157 kontsultari erantzun zien eta 74 izapide egin zituen 49 laguntza, diru-laguntza eta komunikatutako lizitaziori buruz. Era berean, kudeaketa-sistema integral berri baten garapenean lan egin zen, elkartutako erakundeei modu eraginkor eta eraginkorragoan erantzuteko.

2025erako aurrekontua 725.000 eurokoa da, 2024an baino % 6,9 gehiago. Bazkideen kuotengatik izango diren diru-sarrerek % 10,2ko igoera aurreikusten dute.

Elena Cantera buru duen eta 300 negozio elkartu dituen elkarteak hainbat dinamizazio- eta sustapen-ekintza egingo ditu tokiko erakundeentzatzat, eta negozio digitalera egokitzean eta haien zerbitzuak indibidualizatzean jarriko du arreta.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jauriaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

## Liburu Azokak argitalpen nobedadeak eta irakurketarik onena erakutsiko ditu berriro Areeta eta Romon



**LIBURU AZOKA**  
**FERIA DEL LIBRO**

GETXO'25  
**AREETA**  
LAS ARENAS  
GELTOKIA PLAZA  
PLAZA ESTACIÓN

**APIRILA ABRIL**

**04** OSTIRALA VIERNES  
10:30-14:00 / 17:00-21:00

**05** LARUNBATA SÁBADO  
11:00-14:30 / 17:00-21:00

**06** IGANDEA DOMINGO  
11:00-14:30

GETXO KULTURA

Getxo

ELUSKO JAKULARITZA  
GOBIERNO VASCO

Areetako Geltokiko plazak Liburu Azokaren edizio berri bat hartuko du asteburu honetan, hilaren 4tik 6ra, ostiraletik igandera. Herriko liburudendak eta udal liburutegiak espazio publikora aterako dira argitaletxeen nobedadeak eta irakurtzeko aukerarik onenak erakusteko %10eko deskontuarekin. Gainera, Getxo Kulturak antolatuta, egunero adin guztientzako ekintzak izango dira Romo Kultur Etxean.

Ostiralean, hilak 4, 10:30ean, Getxoko ikasleek irakurketa publiko jarraitua (elebiduna) egingo dute eta txapa tailerra izango da. Arratsalderako *Detektibeak clown* ikuskizuna programatu da Monda & Lirondarekin (17:30) eta *Mendia eta liburuak* mahai-inguru elebiduna Eotrkizuna mendi klubarekin (19:00).

Larunbatean, hilak 5, 10:30ean hasiko da *Ramiro Pinillaren Getxoko ibilbide literarioa*-rekin. Goizean, ingelesezko ipuin kontalariak eta haurrentzako irakurketa tailerrak maskotarekin eta ilustrazioarekin, euskaraz eta gaztelaniaz. Arratsaldean haurrentzako eskulan tailerrak eta musika irakurketa.

Azkenik, igandean, hilak 6, Ramiro Pinillari buruzko ibilbide literarioa errepikatuko da. 12:00etan, idazleekin topaketa bat egingo da Areetako Geltokiko plazan, eta programazioari amaiera emateko, haurrentzako txotxongiloen *Hogar, dulce hogar* ikuskizuna eskainiko du Rosa María Martínezek. Ordutegia honako hau izango da: ostirala 4:10:30-14:00/17:00-21:00; larunbata 5, 11:00-14:30/17:00-21:00, eta igandea 6, 11:00-14:30.

## “El viaje del monstruo fiero”, Rafael Álvarez “El brujo”rekin

Rafael Álvarez *El brujo* aktore eta antzerkigile kordobarrak bere azken ikuskizunen fusioa taularatu du larunbatean, hilak 5, Muxikebarrin, *El viaje del monstruo fiero*. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 18 eurokoa da.

Lope de Vegaren loa batetik abiatuta, *El Brujo*-k Urrezko Mendean zehar bidaia bat proposatzen digu. Quevedotik Cervantesera, Santa Teresatik eta Juan de la Cruzetik igaroz, antzerki klasikoaren magia eta misterioa erakusten digu, eta aktore bakoitzean bizi den munstro basatia deskubritzera gonbidatzen gaitu. Antzezpenean zehar, erregistroz aldatzen da, pertsonaien arabera, eta batzuetan diskurtso polifonikoa eten



eta publikoarekin hitz egiten du.

“Munstroaren bidaia hau”, dio Rafael Álvarez *El brujo*-k, “eszenatokietan zehar egiten dudana neurte bidaia da, oraindik ere Espainiako

Urrezko Mendeko loria errepikaezinaren aztarnak ospatzen diren lekuetan. Publikoak munstro basati egin ninduen, eta horrela bete nuen herentziaren zatia. Bululu bat naiz. Testu horiek izan dira nire otoitzak”.

## “La fábula de la ardilla”, herriko kondaira eta ipuinetan oinarritutako haurrentzako antzezlan

La Baldufa Teatre Companyia de Comediants Muxikebarrira iritsiko da *La fábula de la ardilla* antzezlanarekin, herriko kondaira eta ipuinetan oinarritutako haurrentzako antzezlan. Igandean, hilak 6, 18:00etatik aurrera, 3 urtetik gorako haurrek eta haien familiek ikusizun honetaz gozatu ahal izango dute, aniztasunari, eskuzabaltasunari eta bizikidetzari buruz hausnartzeko. Sarrerak 6 euro balio du. Triku handia lasai bizi da eta bereak zaintzen ditu. Baina egunen batean, bake hori asaldatu egingo da katargorri atsegin, bihurri eta jostalari



baten etorrerarekin. Ez da erraza izango elkarrekin bizitzea. Triku zakarra eta babeslea da, eta urtxintzak, berriz, jakiteko eta partekatze-

ko gogoia du. Triku eta urtxintxa oso desberdinak dira, baina ikasteko eta elkarrekin partekatzeke aukera ugari dituzte.



## Arrazkeriaren kontrako antzerki taldea

Udalak bultzatutako Arrazakeriaren aurkako Getxo Antirrazista Estrategiak beste sentsibilizazio-ekimen bat jarriko du abian, antzerki-talde bat osatuz, arrazakeriaren aurkako jarrera eta diskurtsoa ikusarazteko. “Pertsona guztiei irekitako ekimena da, eta, horregatik, aurrera eramango dugun prozesuan parte hartzera animatzen dugu, Getxoko bizilagunek sortutako piezekin, horiek direlako zuzenean migrazioari eta kultura-aniztasunari buruz udalerriko hainbat lekutan gertatzen diren zurrumurruak, aurreiritziak eta elkarrizketak ezagutzen dituztenak”, azaldu du Mihaela Jilavu Immigrazio eta Kulturarte-kotasun Zerbitzuko zinegotziak.

Ekimenaren lehen fasean bi saio izango dira (apirilaren 28an Romo Kultur Etxean eta maiatzaren 19an Villamonteko Kultur Etxean), biak 18:00etatik 20:00etara. Parte-hartzaileak antzerkira hurbilduko dira bizipen-tailerren bidez, taldea sortzeaz eta antzezlaren edukia sortzeaz gain. Hurrengo fasean, irailtik abendura, entseguak egingo dituzte.

Getxoko Antirrazistaren antzerki taldea osasun integralaren eta kultur trukearen aldeko lizargata erakunde getxotarrak dinamizatuko du.

Informazioa eta izenematea: [antirumores@getxo.eus](mailto:antirumores@getxo.eus) / 662 425 662.

## Argazki-erakusketa interaktiboa

Apirilaren 30era arte, *Xavier Undaren Getxo, begirada magiko* bat erakusketa izango da ikusgai Romo Kultur Etxeko Erakusketa aretoan. Argazki-erakusketa interaktiboa da, eta gure udalerriko eguneroko xehetasunak arte-pieza paregabe bihurtzea du helburu.

Erakusketak irauten duen bitartean, edonork bidali ahal izango ditu Getxoko leku edo elementu bitxiak [getxomstriaamica@gmail.com](mailto:getxomstriaamica@gmail.com) helbide elektronikora, eta erakusketa-gunean proiektatuko dira.

## “Joséphine Baker: Paris, mes amours”

*Joséphine Baker: Paris, mes amours.* Izar ausarta ikuskizun musikala Areetako Andrés Isasi Musika Eskolara iritsiko da apirilaren 5ean, larunbata. 19:30ean hasiko da. Sarrera 5 euro. Proposamenak Joséphine Bakerren bizitza liluragarrian murgilduko du publikoa. Artista ikoniko horrek mundua liluratu zuen bere talentuarekin, bere energia harrigarriarekin eta bere borroka-espíritu hautsiezinarekin. Ikuskizunak bere karisma, ausardia eta pasioa azpimarratzen ditu hesiak hautsi eta bihotzak konkistatu zituen emakume bati egindako omenaldian. Artearen, ausardiaren eta konpromisoaren bidez egindako bidaia ahaztezina, honako hauen eskuetik: Lucía Astigarraga (narratzaila), Lorea Mendizabal (ahotsa eta zeharkako txirula), Jesús Miguel Ceberio (teklatuak) eta Agustín Arri (gitarra, gidoia eta zuzendaritza).

### Kontzertu sakroak

Bestalde, apirilaren 5ean, larunbata, 20:00etan, Ars Canticum Ensemble taldeak, Oscar Gonzalezek zuzenduta eta Pedro Guallarrek organoan lagunduta, kontzertua eskainiko du San Nikolas Barikoa parrokan, AMOMA-Merklin organoko lagunaren elkartek antolatutako *Organo & Polyphonia* izeneko lehen zikloaren barruan. Hurrengo egunean, igandea, hilak 6, arratsaldeko 19:45ean, emanaldia errepikatuko da Ama Mesedeetakoaren parrokan. Gainera, Ondarreta abesbatzak, Iñaki Morenok zuzenduta, erlijio-kontzertu eskainiko du ostiralean, apirilak 11, 19:30ean, Ama Mesedeetakoaren parrokan.

## “Koloreekin dantzan”, Sendiren tailerra

*Koloreekin dantzan* sormen tailerra izango da Udalak eta Egizu elkarteak sustatutako Sendi proiektuaren barruan abian jarritako doako jardura berria, euskararen erabilera familien barruan gehitze aldera. 2 eta 3 urte bitarteko txikiak, apirilaren 8an, asteartean, 17:00etatik aurrera izango da Aldai Patronatuaren egoitzan. Parte hartzeko beharrezkoa izango da izena ematea: 622433085 (whatsapp)edo [sendigetxo@gmail.com](mailto:sendigetxo@gmail.com)



## Delirium Tremensen azken bira Muxikebarrira iritsiko da

Delirium Tremens rock taldeak kontzertua eskainiko du Muxikebarrin ostiralean, apirilak 4, agertokiei agur esateko biraren barruan. Emanaldia 21:00etan hasiko da, eta 20 euroko prezioa du. Lau garren eta azken lana aurkeztuko dute: ... *ta nora?*.

Delirium Tremens Euskal Herrian 90eko hamarkadari soinu banda jarri zioten taldeetako bat da. *Iku-*

*si* eta *ikasi* albuma funtsezkoa da Euskal Rock Erradikalaren bigarren olatuaren soinu ulertzeko. Hirukote gisa hasi zen, baina Iñigo Muguruza batu ondoren laukote bihurtu zen eta jardunean jarraitu zuen 1991ra arte. Taldea 30 urte geroago itzuli zen agertokietara, 2022an, *Hordago* albumarekin, eta orain agertokiei agur esango die punk herentziako zortzi rock konposizio aurkeztu dituen disko

batekin, horietako sei argitaragabeak, eta horiei *Batzuetan* eta *Sua* kantua zaharren eguneraketa gehituko zaie. Juantxo Yurrita (bateria), Haritz Harreguy (gitarra), Andoni Basterretxea (ahotsa eta gitarra) eta Mikel Anestesia (baxua) igoko dira oholtzara. Haritz Harreguyk ekoitzi du diskoa eta Joseba Poncek diseinatu du. Aiora Renteria Zea Mayseko abeslariak ere parte hartu du.

## Jim Papoulis zuzendari ospetsuak Eskuz Esku eta Lilura abesbatzak zuzenduko ditu berriro ongintzako kontzertu batean

Igandean, apirilak 6, 18:00etan, Kristo Eroslearen elizan Pequeñas Voces Fundazioaren aldeko ongintzako kontzertua izango da. Eskuz Esku eta Lilura talde getxotarrak, 2022an egin bezala, Jim Papoulis New Yorkeko konpositore, ekoizle eta zuzendari ospetsuaren gidaritzapean arituko dira, zeinak Celine Dion, Aretha Franklin, Vangelis, Cristina Aguilera... 140 ahots zurik, haurrek eta helduek, Papoulisen obrak interpretatuko dituzte. Pa-

poulis Romo Kultur Etxean tailer batean arituko da asteburuan, zuzendariarekin berarekin.

Jim Papoulis Pequeñas Voces Fundazioaren buru da. Irabazi handiko GKE bat da, kontzientzia sortzeko eta haur behartsuentzako musika programetara bideratutako funtsak sortzeko.

Sarrera doakoa da eta aipatutako Fundaziorako dohaintzak jasoko dira.



## Boliviako Inauteriaren desfilea

Larunbatean, apirilak 5, 16:30etik aurrera, Boliviako Integraziorako Inauteriaren beste edizio bat izango da, Areetako kaitik, Gurutze Gorritik Bizkaia Zubiraino. 2013. urteaz geroztik Boliviaren aldeko elkarte kulturalak eta Bizkaian dagoen Boliviako Gizarte eta Kultur Batzordeak antolatuta, gonbidatuen artean beste herrialde batzuetako dantza taldeak izango dira baita Euskadikoak ere, tartean Berantzagi getxotarra.



## “Street Art Boluen” erakusketa, Igurumen Aretoan

Ingurumen Aretoak Victor Landeta artista getxotarrak Bolue inguruan egindako mural artistikoaren sorkuntza-prozesuari buruzko erakusketa eskaintzen du uztailaren 21era bitartean. Horma-irudian, hezegunearen biodibertsitatearen zati bat biltzen du, Getxo Kulturak babestutako proiektu bati esker. Murala egiteko prozesuari eta irudikatutako faunari buruzko hainbat bideo eta argazki osatutako erakusketa honen bidez, Landetaren beste margolan batzuk ere ikus daitezke, gizarteari eta ingurumenaren babesari lotutako gaiekin, mundu osoan zehar egindako bidaien emaitza. Erakusketa bisitatzeko ordutegia: 10:00-14:00 eta 15:30-17:30h, astegunetan, eta 10:00etatik 14:00etara asteburu eta jaiegunetan.

# Getxo Kirolak 588 abonamendu gehiagorekin eta bere kirol eskaintzan 4.300 pertsona gehiago izena emanda itxi zuen 2024a, aurreko urtearekin alderatuta

Getxo Kirolak-ek 25.008 abonaturekin itxi zuen iazko ekitaldia. Hau da, aurreko urtean baino 588 pertsona gehiago. Bertako kiroldegietan antolatutako ikastaro eta jardueretako abonuen eta inskripzioen bilakaerak adierazle nagusien goranzko joera erakusten du hirugarren urtez jarraian.

Horrela baloratu du Álvaro González Udaleko Kirol zinegotzi eta Getxo Kirolak-eko presidentek: *“berriro egiaztatu da adierazle esanguratsuenetako batzuk berreskuratze joera. Hala gertatzen da abonatuaren kopuruarekin, gorakada txiki batekin. Era berean, gure ikastaro eta jardueretan parte hartu dugu, eta modalitate berri batzuk programatu ditugu, herritarren harrera oso onarekin”*.



Gainera, aipagarria da Thinking Fadura prozesuaren aurrerapena eta lehen emaitza ukigarriak, horren emaitza baita TikiToki Zentroa ekipamendu multifuntzional berria. *“Inauguratu eta martxan jarri ondoren, lanean jarraitzen dugu Fadurako kiroldegiko kirol-instalazioak oro har hobetzeko eta kanpoko aldea kirol-parke publiko bihurtzeko. Gure erronka da erasanez ez eragozte inguru horretako jarduerak garatzea, eta lanean jarraitzen dugu herritarrek parkeaz gozatu ahal izan*

*dezaten eta kirola ahalik eta baldintza onenetan egin dezaten”*, gaineratu du Gonzálezek.

2024an, 12.900 pertsona gehiago zeuden izena emanda ikastaro eta jardueretan. Horrela, neguko eta udako kirol-ikastaroen kanpainetan 7.969 izen-emate erregistratu ziren (2023an baino 2.314 gehiago), eta horri gehitu behar zaio 2.050 pertsonak Fadura eta Gobelako fitness eta muskulazio gimnasioak erabili izana. Gaine-

ra, 1.928 pertsonak hartu zuten parte multiaktibitatearen eskaintzan, eta 952k parte hartu zuten adinekoentzako jardueretan. Zifra horien arabera, aurreko urtean baino 4.300 pertsona gehiagok eman dute izena udalaren kirol-eskaintzan.

Instalazioen erreserbari dago-kionez, padel pistak (13.489 ordu), tenis-pistak (7.668 ordu), frontoiak (2.590 ordu) eta areto-futboleko kantzak (1.051 ordu)

nabarmentzen dira. Gainera, Getxo Kirolak-ek 1.346 ordu utzi zizkien guztira astean Getxoko klubei eta kirol-elkarteei euren jardueretarako.

Era berean, eskola-kiroleko jardueretan 2.681 ikasle batu ziren, eta udalerriko kiroldegietan eta hainbat espaziotan 319 kirol-ekitaldi izan ziren guztira.

Memoria eskuragarri dago Getxo Kirolak-en webgunean.

**Programazioak 1.500 plaza inguru eskaintzen ditu eta aurre-inskripzioa maiatzaren 7ra arte dago zabalik**

## Zabalik da Getxo Kirolak-en udako kirol-ikastaroetan izena emateko epea

Getxo Kirolak-ek 1.500 plaza inguru eskainiko ditu Fadurako eta Gobelako kiroldegietan uztailean eta abuztuan antolatuko diren udako ikastaroetan. Programazioaren barnean, haurrei eta gazteei zuzendutako jarduerak daude, eta helduentzat padel modalitatea ere sartzen da. Izena emateko, beharrezkoa da abonutxartela edukitzea.

Aurretiko izen-emateak maiatzaren 7ra arte egin daitezke Getxo Kirolak-en web orrialdearen bidez edo aurrez aurre Fadurako edo Gobelako herritarren arretarako bulegoetan. Plazen zozketa eta behin betiko esleipena maiatzaren 9an argitaratuko da.

Eskaintzaren barnean, 4 eta 14 urte



arteko haurrentzako aisialdiko eta kirol anitzeko ikastaroak nabarmendu behar dira; astelehenetik ostiralera egingo dira goizetan, eta 4 ordukoak izango dira. Gainera, zaintza-zerbitzua egongo da jardueren ordutegia baino ordu erdi aurretik eta ondoren. Ikastaroetan, egunero ingelesa emango da ordu-betez. Halaber, Grand Slam ikastaroak egongo dira 8 eta 16 urte arteko adingabeentzat, tenisa, padela eta uretako jarduerak praktikatzeko. Igeriketa-klaseak, berriz, Getxo Igeriketa klubak emango ditu 4 eta 17 urte arteko adingabeentzat.

Udako kirol-eskaintzari buruzko liburuxka Fadurako eta Gobelako bulegoetan jaso daiteke edota Getxo Kirolak-en webgunean deskargatu.

## XI. Getxotik Oinez Bizi

Itxartu Taldeak irteera bat antolatu du igande honetarako, apirilak 6, Eusko Jaurlaritzaren eta Getxo Kirolak-en laguntzarekin, Osasunaren eta Ariketa Fisikoaren Munduko Eguna ospatzen dela eta. Osteratxo osasungarria 10:00etan abiatuko da Algortako Geltokia plazatik, eta Aixerratik, Usategiko behatoki-

tik, Portu Zaharretik eta Arriluzeko kaiatik igaro ondoren, Bizkaia Zubiko plazan amaituko da. 8 km-ko ibilaldia da antolatu dena, baina nahi duenak ibilbide laburragoa egin dezake, 10:30ean Aixerratik edo 11:05ean Ereagako Turismo Bulegotik irtenda. Jarduera irekia da nahi duten guztientzat.

## Kulturarteko mendi-ibilia

Getxo Etorrinak Federazio Plataformak eta Ibilki elkarteak, beste entitate batzuen laguntzarekin, tartean Udalarena, kultur arteko mendi irteera bat antolatu dute Serantes mendira, larunbatean, apirilak 5, 9:30etik aurrera, Algorako Geltokia plazatik.

Pertsona interesatuentzat zabalik, jarduera osasuntsu eta jasangarria izango da, naturarekin eta lagunekin gozatzeko baita euskal kultura eta ingurunea ezagutzeko ere. Ibilbidea erraza izango da, publiko guztiarentzat. Aurretiko izenematea beharrezkoa da: <https://bit.ly/Senderismo2025>

# Udal talde politikoen iritzia



## EAJ-PNV, ALDERDIA GARA

Ilusio berritua betiko balio humanistekin eta Euskadi askea eta independentea izateko helburuarekin. Izan ere, EAJ-PNVk aurtengo udan 130 urte beteko ditu Euskadirengatik eta Euskadirentzat lan egiten, baina XXI. mendeko baliabideekin eta pertsonekin.

Ehun urte baino gehiagoko proiektua, pertsona berriekin eta lanerako tresna berriekin. Aitor Esteban Bravo da EAJ-ren Euzkadi Buru Batzarraren presidentea berria, eta talde guztiz berritua du berekin, Lurralde bakoitzean eta Eusko Alderdi Jeltzalearen ordezkari nazionalen ontzi handi hau gidatuko duten emakumeen eta gizonen eguneraketa-zikloa itxiko duena. Eguneraketa hori beharrezkoa da euskal gizartearen konfiantza berritzeko, Euskadin bizi diren eta lan egiten duten pertsonena, aurrera egiten jarraitu nahi baitute Euskadi gero

eta elkartuago eta askeago batean. Euskadi Europar Nazio izan dadila, subiranotasunetik eta nortasun propioetik; nazio oparoa askeagoak izateko, funtsezko oinarriak izateko, hala nola justizia soziala eta herritarren eskubideen bermea; eta, noa ez, Euskadi mundu hobe, jasangarri eta baketsu bati irekitako nazioa izan dadila.

EAJ-PNVk euskal gizarteak dioena entzun du, baita haren militanteek diotena ere. EAJ-PNVk aldi berri bati ekin dio ilusioz eta optimismoz beterik, Aitor Esteban duela Euskadiko politikaren ontzi nagusiaren kapitain, demokraziaren eta batasunaren adibide. "Euzkotarren Aberria Euzkadi da" dugu lelotzat Euskadiren askatasunaren alde lan egiten jarraitzeko.

**BATASUNA ETA INDARRA,  
ALDERDIA GARA.**



## UDALAK ARGITARATU DITUEN KRIMINALITATE DATUEK EZ DUTE ERREALITATEA ISLATZEN

Herritarren segurtasunak getxotar guztiak kezkatzen ditu. Alabaina, Udalak eman dituen eta GETXOBERRI honetan bertan argitaratu zituen datuak ez datoz bat errealitatearekin beste iturri ofizial batzuek esaten dutenaren aldean. Izan ere, **Udal-tzaingoaren Memorian 1.249 arau-haustezal daude jasota 2024an, eta Barne Arazoetako Ministerioan, berriz, 2.578, bikoitza baino gehiago.**

Are gehiago, ikusten da Udalak omititu egin duela 2024ko maiatzean Sastegi inguruan izandako 23 urteko gaztearen hilketa, bai eta Getxon izandako beste

**hiru hilketa-saiakera ere.**

Horrez gain, askatasun sexualaren aurkako 23 delitu gehiago, indarkeria erabiliz egindako 39 lapurreta gehiago, indarra erabiliz egindako 60 lapurreta gehiago, 147 ebasketa gehiago eta 659 delitu informatiko gehiago egon ziren Udalak Getxoberrin jasotakoak baino. Segurtasunaren alorrean neurri egokiak eta eraginkorrak ezarri nahi badira, **errealitatea ezagutu eta aitortu** behar da, eta ez, ordea, informazio faltsuen atzean ezkutatu, kalean bertan jakina baita faltsuak direla.



## ehbildu

## BERANDUEGI IZAN BAINO LEHEN

Martxoko osoko bilkuran EH Bilduk mozio bat aurkeztu zuen, Getxo eta Berango artean dagoen Mimenaga padura ekologikoki berreskuratzeko eta karbonozko hustubide natural bihurtzeko eskatuz. Mimenaga berreskuratzeko gure proposamena ez da berria: 2021ean jada proposatu genuen neurriak hartzea degradatuta dagoen eremu horretan, Marel-Renault kontzesionarioa bertan egon ondoren. Uholdeak pairatzeko arriskua duen eremua denez, EH Bildutik uste dugu naturari berea zena itzul diezaiokegula, bertako basoa sortuz, bide naturalak sortuz, Gobela ibaiaren goraldietan ura pilatze-

ko putzuak sortuz... Hala ere, EAJk eta PSEk atzera bota zuten gure proposamena, alternatibarik aurkeztu gabe. Badakigulako zein izango litzatekeen euren proposamen alternatiboa: espekulazio inmobiliarioa eta eraikuntza masiboa sustatzea Berangoko Udalarekin batera, Berango ere aditua baita horretan.

Eta hori guztia larrialdi klimatikoaren testuinguruan gertatzen da. Zoritxarrez, erakunde asko oraindik kontrako norabidean ari dira. Itsasadar azpiko tunelaren proiektuak, adibidez, Artatzako biribilgunea eta Ballonti inguru lotu

nahi dituenak, zuzenean erasotzen die klima-aldaketarekin lotutako politikari. Aldundiak berak eskatutako txostenek aitortzen dute trafikoa % 33 handituko duela, Artatzako parkeari eta Artaza-Romo institutuko patioari kalte larria egingo diela... Zentzugabekeria da, are gehiago Antigu Golfean, Neguriganen eta inguruan izango dituen eraginak kontuan hartuta. Hori dela eta, ostiral honetan, 18:00etan, institutua inguratuz antolatu den giza katearekin bat egingo dugu.

Mugikortasunari dagokionez, ezin ditu-

gu ahaztu garraio biderik kutsatzaileenetako baten eraginak: gurutza-ontziak. Portuko Agintaritzak harro iragarri du aurten 90 gurutza-ontzi baino gehiago izango ditugula, baina ez du aipatu kruzero bakoitzak 12.000 autok sortzen duten gasolioa kontsumitzen duela, 100 aldiz isuri toxikoagoak dituztenak, erabilitako erregaiaren sufre kantitate handia dela eta. Hau da, emisio txikiko eremuak sortzen ditugu auzo batzuetan, auto kutsatzaileak mugatuz, baina emisio handiko beste eremu batzuk sortzen ditugu kaian, Artatzan... Horrela ez dugu aurrera egingo.



## GETXOK EKINTZAIETZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DU

Getxo Sormen Hub ekintzaitza-zentroak bi urte bete ditu, eta espazio garrantzitsutzat finkatu da kulturaren eta sormenaren sektoreko enpresentzat eta proiektuentzat. Ateak ireki zituenetik, 21 enpresa eta proiektu izan ditu Urgull Zentroko udal-instalazioetan, eta 400 eragile baino gehiagoren parte-hartzea sustatu du ekintzaitzako askotariko ekintzetan. Kulturaren eta sormenaren sektoreak

pisu esanguratsua du tokiko ekonomian; hain zuzen ere, udalerriko enpresen % 11 hartzen ditu eta % 5 baino gehiagoko ekarpena du Euskadiko BP-Gan. Getxo Sormen Hub izeneko zentroa PSE-EEK kudeatzen duen Ekonomia Sustapenaren Arloaren mendeko zerbitzua da, eta bi urte hauetan autonomoen, enpresa txikien eta sektoreko eragileen arteko lotura izatea lortu du, Getxok sor-

menerako eta berrikuntzarako inguru paregabe gisa duen rola indartzeko. Hain zuzen ere, "Getxon jarduera ekonomikoak sustatzen duten eta sektoreko mikroenpresei laguntzen dieten aukerazko espazioak sortzea" da helburua, Ekonomiaren Sustapeneko zinegotzi sozialista Juanma Gonzálezek adierazi duenez. Gaur egun, zentroak 22 lanpostu ditu, horietako 15 beteta, aukera finko nahiz txandakatuekin.



## BASOAN BIZITZEA

Kalkulatu da Getxoko eta gertuko udalerrietako basoetan 200 pertsona inguru bizi direla. Batzuek urtebete inguru daramate horrela, eta arriskua dago haien bazterketa egoera kronifikatzeko eta areagotzeko. Erakundearteko batzorde bat sortzea proposatu dugu udalekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin, pertsona horiekin lagundu ahal izateko, baina EAJk eta PSEk kontrako botoa eman zuten.